

IKASTOLAREN ATARITIK

Herririk herri ibili arren
leku batetik bestera
inora ere ez laike jua
toki hobien eskera
zuek zerate herria eta
gu zuen morroiak gera
denon artean salba ditzagun
Euskadi eta euskera.

(Azpillaga)

MIKEL UGALDE

Ni neu ere morroi gisa natorkizue urteroko topaketa honetara ikastolaren ataritik bertako zenbait berri eman asmoz. Errenteriak bere altzoan sortu zuen Orereta Ikastola, eta gaur ere herriak gure ikastola benetan maite duela noiz nahi, eta sarritan, erakutsi ohi digu. Bihoakizue, beraz, gure agurra Azpillagak bertsoan dioena gure baitan hezurmani dadineko ahalegintxo honetan.

GATAZKAN

Geldian dagoen ura usteltzeko arriskuan egon dagoen arren, ikastolari beste horrenbeste gertatzen zaionik ez dezakegu esan. Ikastolak bizi bizi dirau eta biziak berekin dituen une latzak eta gatazkak ezagutu ditu ikastolak aurtengo honetan.

Orereta Ikastolak, haziz doan landarearen antzera, behar beharrezkoa du lur egokia aurrerantzean, sendotu eta indartzeko. Oinarritzko hezierako ikastetxea Añabitarten eraiki zen, geroztik batxilergoa landu ahal izateko beste horrenbeste burutu zen. Baina besterik ere behar genuen.

Eskolaurre eta Hasera Zikloko haurtxoek ikastetxe berri bat behar dute, herri barruan bilduko dituen ikastetxe bat. Une honetan onartu ezinezko kondiziotan dauzkagun herritar hauek tratatu hoberik merezi dutelakoan jokatu dugu.

Ikastetxe berri bat eraiki diezaiguten hamaika pauso eman dute horretarako espreski osatutako batzordearen partaideek. Hango bilera, hemengo, elkarrizketa, ezina eta esperantza, nahasian bizi izan dute azken hilabeteotan. Ikastetxe berria eraikitzeko lurra behar, eta lurra lortzeko... besteak beste, borondatea.

Oraindik bide luze eta aldapatsua gelditzen zaio ikastola-

ri, oztopoak eta trabak ez dira falta izango, baina pauso handi bat eman da. Herritarrok ongi erantzun duzue, eta Udaletxean terrenoak eskuratzeko erabakiak ere hartu dira. Bertatik jarraituko dugun gaia izango da aurrerantzean ere, ez baita duzue hau gauetik goizera burutzerik izango.

HOGUITABOST URTEURENA

Ikastolak iraganari baino geroari gehiago begiratu behar dio. Iragana historia da eta geroa, berriz, eginkizuna. Datorren urtean Orereta Ikastolak bere hogeitabost urteurrena beteko du. Ez da txantxetako ospakizuna. Hamaika neke, lanordu eta ilusio bil daitezke azken hogeitabost urteotako kondairan. Guzti horretaz, bertako kondairaren gorabeherak azalduz, datorren urtean mintzatuko zaizkigulakoan nago, benetan merezi duen gaia bait da.

Ospakizun ezezik, eginkizun ere izango da hogeitabost urteurrena. Mendi gailurrera eskaladan diharduen alpinistaren gisa, guk ere halako geldialdi bat egin beharko dugu, atsedendaldi bat hartu, orain artean lortua duguna aintzat hartu eta, batez ere, oraindik gaintzeko gelditzen zaigun oztopoaren zailtasuna neurtu. Horra hor, labur bildua, burutu beharko dugun zeregina.

Begirada bat atzera emanaz, ikastolaren kondairan zehar garrantzi handiko pausoak, eman direla bistan da. Klandestinitatetik tolerantzira eman zenekoa, legeztatzea, batxilergoa bertan egiteko lorpena, etxe berrien erakuntza, ez ziren nolana hiko lanak izan. Euskal Herrian ikastola bakan batzue baino ez dira batxilergoa eman dezatekenak, eta horien artean Orereta Ikastola. Gure aurrekoek eginkizuna ez zen makala izan, halazankoa.

Une honetan, egin beharrekoak gehiago kezkatzen gaitu



IKASTOLA ZENBAKITAN

Hona hemen Orereta Ikastolak argitaratu tako 1987 urteko Adierazpenetik jasotutako zenbait dato:

2.3. IKASLE ETA IRAKASLE KOPURUA MAILAKA.

Etapa eta Maila	Zenbat						Ratioak			
	Gelak	Ikasleak	Zuzendariek	Irakasleak	Lanaldiak	Ikasle/gelak	Irakasle/gelak			
Hurtzaindegi	4	97								
Enkoluurre	1.	4								
	2.	4	21	103	536	1	23	24	25,52	1,143
H. Zikloa	1.	4		116						
	2.	5		115						
E. Zikloa	3.	5		128						
	4.	5		145						
	5.	5	28	139	832	1	33	33	29,71	1,178
G. Zikloa	6.	5		157						
	7.	4		134						
	8.	4		129						
Hezkuntza B.		3					3	3		1
B.B.B.	1.	3		109						
	2.	3	10	81	345	1	21	16,83	34,50	1,683
	3.	2		70						
U.B.I.		2		85						
DANETARA		62		1.713	3	80	76,83	29,03		1,239

2.4. IKASLE ETA IRAKASLE KOPURUAREN BILAKAERA.



normala den bezala. Ikastolak garaian garaiko erantzuna ematen jakin izan du eta aurrerantzean ere beste horrenbeste egin dezan saiaturko gara.

Ura pasa eta gero presa egiten hastera alferrikakoa den bezalaxe, alferrikakoa bilaka daiteke gure lana geroari aurrea hartzen asmatzen ez baldin badugu. Honetan datza bere desafiok haundiena. Azken hogeitabost urteotan baino aldakuntza haundiagoak ezagutuko ditu gure gizarteak datozen hogeitabostetan. Batxilergo berriak, lanbide prestakizun eraberrituak, ofizioen eraldakuntza, giza molde berri bati erantzungo dion eskola beharko dugu osatu. Hor dago gakoak. Geroarekin konektatzeko gai izango den ikastola behar dugu, horixe litzaiteke bere gaitetasunaren ezaugarriarik nabariena.

Es dakit honako saio hau ez ote den aspergarriegia bilakatzen ari, baina ikastolaren atari honetatik oso desafio gogorra, halaber interesgarria, dakust. Irakasleek pauso handi bat eman beharko dute, gurasook ematen al diogu erabateko bira geure buruari ihes egingo digu ta, bestela, gauean dugun geroko gero ezezagun horrek. Errenteriaren eta ikastolaren arteko lotura are estuagoa beharko dugu, batez ere eskolaren eta gizartearen arteko harremana aurrerantzean tinkoagoa izango delako.

Orain artean ikus-entzutezko komunikabideak, komunikazio moldeak, giza tankera berri bat sortarazten ari da, guztiz nabaria egingo irakaskuntzan. Informatikaren lehen urrats haiek robotikaren mundu ezezagun batetara garamatzate. Ez dago testu liburuarekin, edo fotokopiarekin, orain artean bezala funtzionatzerik.

Azken urteotan ikastolak erantzuten jakin izan du eta aurrerantzean beste horrenbeste burutzen jakingo duen esperantzarik ez dugu galdu nahi.

EUSKERAREKIKO KEZKA

Gauza jakina da ikastolan erdara gero eta gehiago sumatzen dela, gazte askori bere bapateko sentipenak eta espresioak euskaraz ialgitzea kosta egiten zaiola, honetariko askok nor bere burua erdaraz libreago aurkitzen duela. Arazoa hor dugu aurrez aurre gaitz hori sendatzeko esku artean errezeta egokirik ez dugularik.

Honetaz aparte, ordea, bada kezkarazi behar gaituen beste puntu bat, euskararen geroa baldintzapetu dezakeen fenomeno gerta litekena, agian kalterik egin liezaiokeena.

Urte gutxi barru, bistan da, irakaskuntza egiturak aldatu egingo dira. Batxilergo berriak martxan jarriko dira eta honek ikasketak ez dira oso diferentek izango, oraingoan antzekoak baizik. Bigarren mailekoetan, ordea, batxilera aukera gehiago emango da, baina, era berean, ikastetxe bakoitzak ezin izango dio bere ikaslearen eskaera orokorrari erabateko erantzunik eman. Beste era batera esanda, ikastolak eskaintzen ez dituen batxilerrak egin nahi dituen gazteak kanpora jo beharko du, eta ikastolen arteko plangintza bat burutzen ez baldin bada, zenbait ikasleri ez zaio goi mailako batxilergoa euskaraz ikasteko egokierarik emango.

Aipatzen den arazo hau ez da, egia esan, gaur egun kezkarazten gaituena, luzarora begira, ordea, eta geu iraganari baino geroari gehiago begiratzearen aldeko gaituzue, kontutan hartu beharrekoa izango da.

IKASTOLA ZENBAKITAN

Hona hemen Orereta Ikastolak argitaratutako 1987 urteko Adierazpenetik jasotutako zenbait dato: